

# LUDOTEKA BEREZIA Gabonetan 2020

1. **Gaia:** “Nahaste-borraste, Zientzarekin Jolasean” (Zientzia).
2. Norentzat: **2011-2014 urte artean jaiotako umeentzat.**
3. **Ametx Txartela UME TXARTELA bezala** aktibatuta izatea **derrigorrezkoa** da.
4. **2 TXANDA** eskaintzen dira, (txanda bakar batean parte hartu ahal izango da).
  - **1. txanda:** abenduaren 28, 29 eta 30
  - **2. txanda:** urtarrilaren 4, 5, 7 eta 8.
5. **Orduetgia 10:00etatik 13:00etara** izango da.
6. **Izen emateko epea 2020ko azaroaren 16tik 27ra** izango da. Izen-ematea Gazte Informazio Bulegoan **presentzialki** edo telefonoz (946300649) egingo da hurrengo ordutegian:
  - Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00**
  - Astearte, asteazken eta ostegunetan: 11:00-13:00 / 17:00-20:00**Izen-ematea **telefonoz** (946300649) egiteko aukera ere badago bulegoan **izen emateak burutzeko ezarritako ordutegian.**
7. **Plaza mugatuak.** Matrikulazio gehiegi izanez gero, **zozketa bidez esleituko dira plazak.** Plazaren **esleipena azaroaren 30ean** baieztatuko da **SMS bidez.** Kanpoan geratzen direnak (zozketa egitekotan) **itxaron zerrenda** batean geratuko dira.
8. **Izen-ematea:** Izen-ematea **banaka zein taldeka** egin ahal izango da (gehienez 3 ume talde bakoitzean). Taldekako izen-emateak eskaera bakartzat hartuko dira, baina honek **ez du ziurtatzen ume guztiak talde berdinean** parte hartuko dutenik, jardueren garapenean umeak ikasturtearen arabera banatuko baitira.
9. **Ordainketa kreditu txartelarekin** egingo da **ezartzen den epean, abenduaren 9tik 16ra,** zozketa egin ondoren **plaza esleituta dagoelarik.** Epean zenbatekoa **ez ordaintzeak plaza galtzea dakar.**
10. **Prezioak** eta beherapenak.
  - **1. txanda: 24 €**
  - **2. txanda: 32 €**Ez da beherapenik aurreikusten.  
DBE: prezio ordenantzaren arabera.
11. **Itzulketak.** Dirua itzuliko da hurrengo egoeretako bat ematen bada, beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentazioa aurkeztuta:
  - a) Gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria)
  - b) Etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharizan larriak, justifikatuta.Behin programa hasita **diru itzulketa arazo larriren bat suertatzen bada baino ez da bueltatuko,** eta disfrutatu ez diren egunen kopuru proportzionala soilik.
12. Ludoteka Berezia Gabonetan 2020 programa **Zelaieta zentroko instalazioetan** garatuko da.
13. Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babespean egingo dira.